

**BIZITEGI ERAIKINA**  
B MAILA**PRIM 29**

Egilea eta data: Ramon Cortazar, 1920/1921.

**Deskribapena**

Bi fatxada abio diferenteko eraikina da; Gernikako Arbola pasealekura ematen duten bastarde eta erdisotoa, eta Prim kalera ematen duen behe oina ditu. Gaietik sei goi oin ditu; bosgarrena eta seigarrena kalearekiko atzeraemanak dira, pasealekurantz ematen duen fatxadan seigarrena bakarrik atzeratzen den bitartean. Harlanduzko fatxadak eta hormigoizko begiratokiak. Pasealekura begira dagoen fatxadako erdisotoaren gainean terraza bat dauka. Prim 27 eta 31rekin proiektu komuna da. Babestu beharreko ataria, berriz, bikoitza da eta Prim 27rekin partekatzen du.

**Babes erregimena**

## 1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen B babes mailan sartzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.

## 2.- Berariazko erregimena.

A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemanak.

B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; begiratokiak.

C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak:

\* Ataria jatorrizko elementuekin kontserbatuko da, aldaketarik gabe.

\* Prim 27rekin esku hartze unitatea osatzen du.

D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, aurreko aurreikuspenen aplikazioaren emaitzazkoen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dituztenak barne harturik.